

2023/2024 IKASTURTEA: BARNE MATRIKULAZIORAKO ORIENTABIDEAK



1. **Matrikulatzeko epea:** martxoaren 20tik apirilaren 3ra arte dagoeneko Musika Eskolako ikaslea bazara.

2. **On-line matrikulazioa 2023/2024 ikasturterako.**

www.getxo.eus Administrazio Elektronikorako Bulegoa (AEB) atalean

- **Ziurtagiri Digitalaren bidez:**

- NAN elektronikoa, BakQ.

- **Erabiltzaile eta pasahitzaren bidez:**

- ERABILTZAILEA: **NAN / AIZ edo helbide elektronikoa.**

- PASAHITZA:

Identifikatzailea (NAN / IFZ)	<input type="text"/>
Edo Emaila	<input type="text"/>
PIN Kodea	<input type="text"/>
	<input type="button" value="IDENTIFIKATU"/>

Zure PIN-kodea ahaztu baduzu, [klikatu hemen](#).

Bete beharrekoa:


Sartu **"Musika Eskola"** atalean.

- **Datu pertsonalak:** Bertan zure pasahitza eta posta elektronikoa aldatu ahal dituzu.
- **Nire matrikula-proposamena:** Aukeratuta agertuko zaizu 2022/2023 ikasturtean zein irakasgaitan zauden matrikulatuta. N3 eta N4 mailetako ikasleak taldean matrikulatu behar dira.



Irakasgai horietan matrikulatuta jarraitu nahi baduzu, sakatu **"bidali"** . PDF formatuan egiaztagiri bat jasoko duzu. Gorde matrikularen ziurtagiri modura. PDFa jaso ezean, errepikatu urratsak.

Aurre matrikula-proposamena aldatu nahi baduzu:

 **Desaktibatu irakasgaia:** Horrek esan nahi du ez duzula irakasgai horretan matrikulatuta jarraitu nahi. N3 eta N4 mailetako ikasleek ezin dute taldeko irakasgaia desaktibatu.

2022/2023 ikasturtean egin ez duzun irakasgai batean matrikulatu nahi baduzu: aukera ezazu/itzazu 2023/2024 ikasturterako. Sakatu **"Bidali"** . PDF formatuan egiaztagiri bat jasoko duzu. Gorde matrikularen ziurtagiri modura. PDFa jaso ezean, errepikatu urratsak.

Hastapen ikasgaia: 1. maila 3. moduluan (6 urte) matrikula egingo duen ikasleak **Musika-tresnaren hastapena** ikasgaian ere egin beharko du matrikula. Irakasgai hau 5 ostiraletan emango da ikasturtean zehar; kontzertu didaktiko erakoa izango da, horren ostean tailer saio batzuk izango dira eta bertan ikasleek aipatutako kontzertuko tresnak ezagutu eta probatuko dituzte.

Datorren ikasturtean musika-tresna hartu behar duten ikasleak: 1. maila 3. moduluko eta instrumenturik ikasten ari ez diren 2. maila-1. moduluko ikasleek, datorren ikasturterako musika-tresna aukeratu behar dute. Horretarako, **matrikula-eskabidean honako irakasgai hauek agertuko dira aurrez hautatuta:**

- ✓ Musika-hizkuntza eta irakasgai generikoa: "MUSIKA-TRESNA". Ez da tresna zehatz bat hautatu behar, sakatu "**bidali**". PDF bat jasoko duzu konfirmatzeko. Gorde matrikularen ziurtagiri modura. PDFa jaso ezean, errepikatu urratsak.

Matrikulazio-aldia amaituta, gutun bat jasoko duzu; bertan adieraziko zaizu zein espezialitatetan dauden plazak eta zenbat dauden. Gutunarekin batera PDF bat ere jasoko duzu, hor adierazi beharko duzu, lehentasun-ordenaren arabera, zeintzuk diren zure interesekoak. Epe bat irekiko da PDFa posta elektronikoz bidal dezazun.

Instrumentu-plazak zozketa publiko bakar baten bidez esleituko dira. Lehenengo tresnako plaza libreak bete ondoren, bigarrena, hirugarrena edo ondorengoak esleituko dira, zozketan geratu diren hurrenkeran, ditugun plazak bete arte. Eskatutako tresnarik esleitu ezin izan bada, gainerako tresnetan ditugun plazak eskainiko dira, zozketan ezarritako ordenaren arabera.

Ezingo da matrikula berririk egin bi espezialitatetan. Ahots Teknika espezialitatetzat hartzen da. Espezialitate-aldaketa eska daiteke, oraingo plazari uko eginez, eskatutako espezialitate berrian leku librea izatearen zain. Ezin da musika-hizkuntza soilik ikasi.

4. Beste izapide batzuk 2023/24 ikasturtean

- ✓ **Eszedentzia**
- ✓ **Egoitza-aldaketa**
- ✓ **Irakasle aldaketa**

3. Tasak:

Matrikula.....	31,50 €
Bakarkako irakasgaiak.....	368,55 €
Taldekako irakasgaiak.....	207,90 €
Hastapena	47,25 €
Musikoterapia.....	52€

- ✓ Getxon erroldatuta ez dauden ikasleek **% 50** gehiago ordaindu beharko dute tasetan.
- ✓ Matrikula irailan ordainduko da eta tasak urritik ekainera 9 hilabetetan banatuta.

